

Rserba: KANALAK


SARRERA:

- Kanalen bitartez lortzen dugula gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea, gure balio-proposamena helarazteko.
 - Komunikazio-kanalak
 - Banaketa-kanalak
 - Salmenta-kanalak
- Bezeroarekiko harreman-guneak dira kanalak, eta bost fasez osatuta daude
 - Pertzepzioa
 - Ebaluazioa
 - Erosketa
 - Entrega
 - Salmenta ondorengoa



AZALPENA:

Kanalaren bitartez gure produktua merkatu segmentu desberdinetara zabalduko dugu, eta honela gure balio proposamena jendearengana heltzea lortuko dugu.



Gure kasuan, erabiliko ditugun komunikazio kanalak bi motatakoak izango dira. Alde batetik, **internet** (play store eta app store-n) izango da, bertan jarriko dugu jatetxe eta tabernen inguruko informazioa, horrela online izanez momentu berdinean jende gehiagori iritsiko zaio. Bestalde, beste komunikazio kanala **bezeroekin zuzeneko harremana** izango da. Hau da, etengabeko kontaktua izango dugu gure bezeroekin. Horretarako eta gure lanean lagundu ahal izateko kontsumitu ondoren bazkide bakoitza zerbitzuaren balorazioa egin dezakete.

Gure salmenta-kanala, berriz, **interneta** izango da. Horrela, Internet bidez, eta ez fisikoki, ez gara ixten jende kopuru horren bisitara, baizik eta gure gaitasuna milaka pertsonari irekitzen diogu inolako mugarik gabe, fisikoan izan litekeen bezala. Jatetxeetako jabeei gure produktuaren inguruko informazioa gerturatuko genien, horrela beraiek bezeroei xehetasun handiagoarekin azaldu ahal izango dutelako gure produktuak dituen abantaila guztia.

Gure produktua bezeroarengana heltzeko, alde batetik gure **kanal propioak** erabiliko ditugu; interneten (aplikazioaren) bitartez sortutako aplikazioa izango da, eta bezeroek gurekin harremanetan jartzeko edo produktua zuzenean guri eskatzeko erabili ahalko dute. Bestalde, Rserbarekin lan egingo duten enpresen bitartez ere bezeroekin harreman estuagoa mantendu ahal izango dugu. Gainera, Gipuzkoako Ostalaritzako Elkarteak, gure aplikazioa zabaltzera lagunduko digu.